

# HAUR ESKOLA EUSKALDUNA ETA HERRITARRA

## GURE PROPOSAMENA

### SARRERA

---

Hezkuntzaren garrantziaz betidanik ohartu gara euskaldunok. Asko izan eta izaten ari dira hezkuntza sistema nazional bat izateko aurkitu ditugun oztupoak, baina asko ere euskal hezkuntza sistemaren alde eman ditugun urratsak. Euskal Herriaren eraikitzean ibili beharko dugun bidea luzea izango da. Baina gure hezkuntza eskubideak eta beharrak ondo ezagutzen ditugu eta argi dugu ze edukiak diren ezinbestekoak: Euskal herriko hizkuntza, - euskara- bere kultura, bere historia... Justizia, elkartasuna, demokrazia.: garatu behar diren baloreak:

Honegatik guztiagatik honelako galdera zehatzak egin dizkiogu gure buruari: zer da 16 urteko gazteek jakin behar dutena derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan? Zentzuk izango diren beraien beharrak helduak direnean, hau da, sortuko zaizkien arazoei aurre egiteko, zein gaitasun garatuta izan beharko dute esparru guztietan ( pertsonal mailan, giza harremanetan, lanean...)? Zer papera bete beharko dute gizartean partaide aktibo bezala?

Xedea, helburuak, oso argi ditugularik, badago xehetasun bat egiteko: Hezkuntza eskubidea jaiotze unetik dagokigu. Beraz, hezkuntza sistemak behar honi lehenengo unetik erantzun jakin behar du.

### 1. HAUR ESKOLAK: BERE GARRANTZIA ETA FUNTZIOA

---

Haur eskolen garrantziaz ohartzeko lehendabizi umeak 0-6 urte bitartean garatzen duenetaz jabetu beharko dugu.

#### HAURRA:

Haurra sozial eta kultur- testuinguru batean garatzen da eta bere iharduera parte hartzen duen giza harremanetan txertatuta dago beti. Haur garapena benetako inguruetan ematen da eta beti ere horietan dituen gaitasunen baino urrunago joatera bultzatzen duten erronkak eta desafioak aurkitzen dituenean.

Bizitzaren lehenengo urteetan pertsonaren gaitasunak eremu ezberdinetan garatzen dira: soziala, kognitiboa, linguistikoa, motorikoa, oreka pertsonala. Norberaren ezagutza, autokontzeptua, autonomia, baloreak...garatzen dira. Haur hezkuntzak garapen pertsonal eta orekatu bat ahalbideratzen dituzten oinarriak finkatzean paper nagusia betetzen du.

Haurren garapenean parte hartzen duten pertsonak, papera garrantzitsu bat betetzen dute arrazoi hauek direla medio:

- Ereduta, baloreak transmititzen ditu: errespetua, justizia, elkartasuna, laguntza...
- Laguntza eskaintzen duen bakoitzean, eginkizun bat egiten erakustez gain haurrari funtzio berriak eraikitzea, dituenak sendotzea eta ondorioz hezitzea uzten dizkioten prozedurak ekartzen ditu.

- Hizkuntza pertsonen arteko elkartrukeari esker garatzen denez gero, gaitasun komunikatiboak garatzera laguntzen du, , elkarren artean komunikatzeko eta errealitatea errepresentatzeko tresna pribiligiaturia bezala erabiliz.
- Segurtasun afektiboa ematen du,

Garapen hau kontestu ezberdinetan ematen da. Ezberdinak dira ematen diren familia-egoerak (tamainua, heldu kopurua, lan- egoerak...) eta ondorioz, ezberdinak bere beharrak. Behar horiek haurren betebeharratetik erantzun behar dira.

### **HAUR HEZKUNTZA:**

Europako hezkuntza sistemek hezkuntzaren lehenengo katemaila bezala kontsideratzen dute, haurren garapena bultzatzearen xedea duena, interes eta motibazio ezberdinei erantzuten diena eta jakin nahiak eragiten dituena.

Umeen adinak, bere gaitasunen garapenak eta apendizaiak baldintzatzen duten behar eta interesak dira etapa honen ezaugarriak ezartzen dituztenak.

Etaparen honen izaera unitarioaren zergatia da adin honetan iharduera koordinatu eta progresiboa ahalbideratzen dituzten oinarriko ezaugarriak ematen direla.

Etaparen zikloen banaketak (0-3 eta 3-6) haurren garapenean ematen diren une ezberdinetara egokitzea baimentzen du eta haurrengan ematen diren gaitasun, erritmo eta prozesuen aniztasuna onartzen du.

### **BERE FUNTZIOA:**

Haurren garapenean garatzen diren gaitasunengatik eta etapa berak dituen ezaugarriengatik, Haur Hezkuntzak betetzen duen funtzioa hezitzailea dela argi eta garbi geratu da.

Baina gaur egun bi aurkako jarrera ohartzen dira:

- Umeak eskolarako prestatzeko toki bat dela eta ondorioz bere iharduerak ezagupenak edota trebetasunak garatzeko eta eskola-kontestuan egingo dituen eginkizunei begira antolatuta behar direla.
- Zerbitzu asistentzial bat dela soilik, gurasoek lan egiten duten bitartean umeak egokiro hartzen dituen.

Gure ustez ordea ez da bata ez bestea. Gure ustez Haur hezkuntza kontsideratu behar da:

- Jaiotzetik hezkuntza eskubide bat bezala. Bere funtzio hezitzailea ukazina da, beraz.
- Ume guztiek gozatu dezaketen toki bat, bere beharretara egokitua, bere garapen integrala bultzatzen duena, jakin nahia eragiten duena.
- Halaber familien behar eta motibazioak kontutan hartzen dituen tokia da, azken finean bere seme-alabenak baitira.

## **2. HAUR ESKOLAK EUSKAL HERRIAN.**

---

### **HASIERA**

Haur Hezkuntza bi zikloetan antolatuta dago: 0-3 eta 3-6. Azken hori ikastetxeko proiektuan kokatzen da, EAE eta Nafarroan, bere gobernuko Hezkuntza Sailaren menpean dago eta bere izaera hezitzailea da. Ipar Euskal Herrian aldiz, ez dago ezarrita.

Lehenengo zikloa aldiz (0-3), sorrera ezberdina izan du. Industrializazio garaiarekin batera, gurasoak lanean zeuden bitartean, umea atenditzeko arazoak, 70. hamarkadan haurtzaindegiak sortu ziren. Bere kudeaketa erakunde ezberdinen esku zegoen (herriko udalak eta entitate pribatuak batez ere) eta haurraren zaintza fisikoa eta afektiboa ematea zen bere funtzioa.

## **BILAKAERA**

Urtetan zehar haurtzaindegiaren ikuspegia aldatzen joan da, umeak bere ongizate fisiko eta afektiborako behar den atentzioa emateaz gain, atentzio horiek haurraren garapena bultzatzen dutela eta kontestu hezitzaile batean ematen dela kontsideratzen joan delarik.

Ziklo honi intentzio hezitzailea emateak aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen:

- Inguru fisikoaren aldaketa: espazioen antolamendua, denboralizazioaren erritmoa, materialak: haurren ezaugarrietara egokituta, iharduera ezberdinak, erronkak...eskaintzen dituztenak.
- Hezitzaileen formazioa, papera: bere ezaugarrien artean: afektua, sentsibiltatea, haurraren aniztasunari egokitzen dena erantzun ezberdinak ematen, entzule aktiboa, hizkuntzaren erabilera ahalbideratzen duena, autonomia garatzen laguntzen duena...
- Haur kopurua: adinaren arabera egokitu da.
- Familiarekin koordinazio estuago bat: horrela, Familiak haur eskolak bete behar duen lan hezitzailea aurrera eramaten laguntzen du, Haur eskolak bere lana familien aniztasunari egokitzen dio erantzun ezberdinak emanaz eta Familiaren kompetentzia hezitzailea hobetzera laguntzen du.

## **ESPERIENTZIAK**

Aurreko guztia kontutan hartuz esperientzia aberatsak eman dira herri ezberdinetan: Belgikan, Italian (Bologna), Katalunian (Bartzelona), Andaluzian (Granada)...

Euskal Herrian ere lehenengo zikloa haurtzaindegi bezala sortu zenetik esperientzi ezberdin eta aberasgarriak eman dira.

- Oso garrantzitsua izan da haur eskoletako hezitzaileen aldetik egindakoa, etengabeko formakuntzan murgildu baita, teoria praktikarekin parekatu baitu eta hausnartu ondoren bere praktika haurraren garapenari egokitu baitio, haurtzaindegi zena haur eskola bilakatzen lagundu duelarik.

Ikuspegi hezitzailea izateko aurrerapauso asko eman dira alderdi desberdinetan: titulazioan, ratioan, hizkuntza eskakizunetan (denak euskaldunak), metodologian... Adibide gisa EAEn aipatu dezakegu Gipuzkoako Haur eskolen koordinakundean parte hartzen duten haur eskolak, egindako lan teorikoari esker, duten praktika oso aurrerakoia baita eta bere proiektua aurrera eramateko baldintza hobeagoak izatea lortu baitute (ikasleen ratioak, langile euskaldunak...)

Aipamen berezia ere merezi du ikastetxe batzuek egin duten ahalegina, haur hezkuntzako bi zikloak hezkuntza proiektuan integratuz (Donostian Amazorrain ikastetxea).

- Haur eskoletan hizkuntzari, euskarari, ematen zaion tratamendua kezka handia da. eta hezkuntza komunitatea euskaraz heitzeko eskubidearen defentsan betidanik agertu da, eragile bakoitzak, irakasle zein gurasoek partaidetza ezberdina izan duelarik. Baina aldarrikapenaren erantzunak, oihartzunak ezberdinak izan dira herrialde batzuetan nahiko kaskarra izan delarik. Honek guztiak mobilizazioak ekarri ditu. Aipatzeko da Gasteizen duela 3 urte haur eskola hezitzaile euskaldunaren alde sortu zen guraso plataforma.
- EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienetan 2 urteko gelak eskeintzen dira. Egiten den planteamendua Haur eskoletan egiten dena da: adaptazio prozesua, gurasoekin koordinazioa, espazioen antolamendua...

## **EGOERA BERRIA**

Izandako bilakaeran emandako aldaketetan guraso eta hezitzaileek parte hartu dute. Baina ezin dugu ahaztu LOGSEak ziklo hau islatu duen arautu gabe egon dela, haur eskolen antolamendu osoa (izaera, langileen titulazioa, hizkuntza trataera, metodologia...) kudeatzen dutenen erakundeenpean egon delarik.

### **- EAEn:**

Hezkuntza Sailari zegokion ziklo honek behar duen trataera ezartzea. Atzerapen handiarekin, 2002ko abenduaren bukaeran 0-3ko dekretua argitaratu da.

Dekretuak hutsuneak izan arren hezkuntza komunitateko mugimenduek aldarrikatzen zuten alderdi batzuk jaso ditu: izaera (hezitzailea eta asistentziala), hizkuntza trataera eta langileen hizkuntza eskakizuna. Eskola mapa egiteko kontutan hartuko diren irizpideak, titularitatea eta subentzioak jasotzen dira ere.

Hezkuntza komunitate eta eragile sozial ezberdinekin 0-6 inguruan aritzeko eta dekretuaren zirriborroari buruz hausnartzeko eta proposamenak egiteko mahai bat sortu zen 2001eko urrian. Horrez gero mahai horrek ekimen ezberdin antolatu du. Dekretuari dagokionez aurretik aipatu diren irizpidez gain (izaera hezitzailea, , hizkuntza eskakizuna...)hauek dira Hezkuntza Sailari luzatu zaizkion proposamenak:

- Ezarpen progresiboa, lehenetsua emanez behar sozio-ekonomiko eta linguistikoak dituzten herrietan.
- Eskaintza publikoa bestelako eskaintza dagoen herrietan bermatzea.
- Izaera publikoa
- Herri txikietan tratamendu berezia izatea.

Titularitatea publiko edo pribatua izan daiteke. Haur eskolak dituzten Udalekin hitzarmenak egingo dira. Lehenetsua titularitate publikoa dutenek izango dute. Finantziazioaren asmoa: 2005erako sare publikoan %70<sup>a</sup> eta pribatuan %60<sup>a</sup> izango da.

### **- NAFARROAN:**

Dauden haur eskolak Udalek kudeatzen dituzte eta finantziazioa 3 zatitan banatzen da (udalak, gurasoak eta Nafarroako gobernuaren artean).

Esperientzia aldetik, aipatzekoa da lehenengo zikloaren (0-3koaren) alde sortutako plataforma, bertan hezkuntzako eragile ezberdinek parte hartzen dutelarik.

Plataforma honek oinarritzko helburuak adostu ( jaiotzetik hezkuntza eskubidea izatea eta Hezkuntza Sailak ziklo honen ardura hartzea) eta dauden zailtasun eta oztopoak identifikatu ditu. Bere helburuak garatzeko eta oztopoei aurre egiteko ekimen ezberdin antolatu ditu, besteak beste: manifestu bat adostu, bere aldeko sinadura bilketa (3.300), parlamentuan agerraldi bat...

### **- IPAR EUSKAL HERRIAN:**

0-3 zikloa ez dago bere osotasunean ezarrita. Seaskako ikastolek Hegoaldekoetan egiten den bezala, 2 urteko gelak eskaintzen dituzte eta ematen den trataera hezitzailea da.

Honez gain ez dago aipatzeko ezer berezirik, zikloa zabalduta ez baitago.

## **3. EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLAREN PROPOSAMENAK**

Euskal Herriaren eraikuntzan hezkuntzak zutabe estrategiko bat izanik, tratamendu espezifiko eta ondo antolatua izan behar du.

Hezkuntza sistema nazionalaren alde lan egiteko orduan ondo identifikatu behar ditugu gure hezkuntza eskubideak, ditugun gabeziak... eta horren arabera lehentasunak jarri eta planifikazio bat egin. Baina ezin dugu ahaztu hezkuntza eskubideak jaiotzetik dagozkigu.

Horregatik Haur Hezkuntzaren etapaz hitz egiterakoan 0-6 urte bitartean garatzen denari buruz hitz egiten ari gara, 0-3 a lehenengo zikloa kontsideratzen dugularik.

0-3 zikloaren izaeraz hitz egiterakoan honelakoetaz hitz egiten ari gara:

- **HEZITZAILEA ETA EUSKALDUNA:**

Kontutan hartzen baititugu adin honetan garatzen diren gaitasunak, hizkuntzaren garapena, baloreak, trebetasunak...

Hezkuntza proiektua ziklo honetan hasi behar da beraz. Eskainiko den aprendizai haurren garapena bere osotasunean garatzeko antolatuko da, umearen ezaugarriak, interesak kontutan hartuz, beti kontestu batean eta erronkak eskaintzen.

Proiektuak hezkuntza eskubideak garatzen direla bermatuko du: euskara, euskal kultura, eredu pedagogikoa, baloreak, aniztasuna...

Hizkuntza eskubidea ondo garatzeko, hezkuntza proiektuan hizkuntzaren trataera guztiz zehaztuta, eta tokian tokiko dagoen hizkuntza egoerari egokitu agertu beharko da, hau da: euskara bigarren hezkuntza bezala garatzen duten hurrekin murgiltze eredu ezarriko da eta horren arabera aldagai metodologikoak antolatuko dira. Ume euskaldunentzat aldiz, beste planteamendu bat egingo da, bere hezkuntza jaiotzetik ama hizkuntzaz garatuko baitute.

Honetarako baldintza hauek eman beharko dira: haur kopuru egoki bat, langileria euskalduna, titulazioa, etengabeko prestakuntza, metodologia egokia...

- **HERRITARRA:**

Ezin dira ahaztu familietan ematen diren egoera eta behar ezberdinak direla eta ondorioz umeenak ere.

Ziklo honek umeen heziketaz arduratzeaz gain, familiengan pentsatu behar du, egoera ezberdinei erantzun ezberdin eman behar ditu. Honetarako lehentasunak ezarri behar dira : behar sozio-ekonomikoak, linguistikoak hain zuzen. Herri txikietan ematen diren egoerei erantzun espezifiko bat eman beharko da.

Familiak, hezkuntza komunitateko eragilea den heinean, erabakigunetan parte hartuko du eta aurretik aipatu ditugun arazoiengatik eskolarekin koordinazio estua izango du.

Gure ustez zikloaren titularitatea ez da hain garrantzitsua bere izaeran hezitzaile eta herritarra kontzeptuak ezartzen badira eta kudeaketa egoki bat ematen baldin bada.

EHBEk lehenengo zikloaren aldeko apustua egin dezake. Argi dago herriz herri egoera ezberdin dagoela eta formulazio ezberdinekin erantzun beharko dela. Goazen ba gure herrian dagoen eskaintza aztertzeraz, ematen diren gabeziak detektatzeraz eta epe bati begira lehentasunak jartzera. Honetarako haur eskola horretako eragileekin harremanak eta koordinazio bat izatea ezinbestekoa izango da.